

# Haserrea

**1** Kokatu sentimendu hauek eskalan, eta, gero, inguratu zure ustez nola sentitzen den Emoziotegiko 18-19. orrialdeetako irudiko protagonista.

haserre lasai minduta pozik



egonezina ongizatea

**2** Zer uste duzu gertatuko zela irudiko egoerara iristeko (Emoziotegiko 18-19. orrialdeak)? Ordenatu.

- ☐ Katu bat zangan erori zen.
- ☐ Langile batzuek zanga bat egin zuten kalean.
- ☐ Katua haserretu egin zen.
- ☐ Eltxo batek katua ikusi zuen.
- ☐ Eltxoa katuaren inguruan burrunba egiten hasi zen.

**3** Idatzi elkarrizketa labur bat irudiko protagonisten artean.

 ______________________________

 ______________________________

 ______________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017  Material fotokopiagarria.

**4** Zer esan nahi du **atsegin** hitzak? Inguratu erantzun egokia.

- ☐ Erraz jasaten dena.
- ☐ Esker ona eragiten duena.
- ☐ Gogobetetasuna eta gozamena ematen duena.

Osatu **atsegin** hitzaren kontrako esanahia duen hitza.

D __ S A __ __ __ G __ N

**5** Idatzi beti atsegina iruditzen zaizun zerbait. Gero, idatzi inoiz atsegina iruditzen ez zaizun zerbait.

________________________________________

________________________________________

________________________________________

**6** Noiz hasten da zerbait narritagarria izaten? Begiratu adibidea, eta osatu.

> Abesti bat narritagarria izaten hasten da gehiegitan entzuten duzunean.

Lurrin bat narritagarria da ____________________

________________________________________.

Haizea narritagarria da ____________________

________________________________________.

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

**7** Osatu taula zure bost zentzumenekin, eta eman zentzumen bakoitzarekin hautematen dituzun gauzen adibide bana.

| Zentzumena | Hautematen ditudan gauzak |
|---|---|
| ikusmena | |
| | |
| | arrosa baten usaina |
| | |
| | |

**8** Saioari narritagarria gertatzen zaio iturria tantaka entzutea. Markatu Saioa nola sentitzen den azaltzen duten bi esaldiak.

- ☐ Saioak ezin du arreta iturria ez den beste ezertan jarri.
- ☐ Tanta-jarioaren erruz, Saioak entzumen-zolitasuna galdu du.
- ☐ Saioak uste du tanta-jarioa entzuten jarraitzen badu erotu egingo dela.
- ☐ Saioak ez du iturria ondo itxi nahi, tanta-jarioa gustatzen baitzaio.

**9** Inguratu **jasangaitz** esanahia duten hiru hitzak. Gero, idatzi zuretzat jasangaitzak diren hiru gauza.

| | | |
|---|---|---|
| gobernagaitz | onartezin | aurresanezin |
| jasanezin | ezinezko | pairaezin |
| ikusezin | saihetsezin | pentsaezin |

_______________________________________________

_______________________________________________

_______________________________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017  Material fotokopiagarria.

**10** Egoera hauetatik zein dira **narritagarriak**? Markatu.

- ☐ Zure arrebak zu etxeko lanak egiten ari zarenean abesten du beti.
- ☐ Lore asko daude bizilagunen balkoian.
- ☐ Egunero, eskolara bidean, zaborra aurkitzen duzu.
- ☐ Behin, ez zintuzten urtebetetze-festa batera gonbidatu.
- ☐ Beste haurrek ez dizute inoiz jolasetan parte hartzen uzten.
- ☐ Egun batean, irakaslea nahastu egin zen, eta beste izen batez deitu zizun.
- ☐ Egunero, irakasleak beste izen batez deitzen dizu.

**11** Orain, egin zerrenda bat, eta jaso han zuk egiten dituzun eta zure ustez beste batzuentzat **narritagarriak** izan daitezkeen gauzak.

**12** Pentsa ezazu zure bizilagunak musika oso ozen jartzen duela beti. Idatz iezaiozu ohar bat, horrek haserrarazi egiten zaituela esateko eta gehiago ez egiteko eskatzeko.

**13** Zure ustez, zer desberdintasun daude amorruaren eta haserrearen artean? Idatzi.



© Palabras Aladas, SL, 2017  Material fotokopiagarria.

# Haserrea

## OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.